

## «Edukiontzia inguruetan oker utzitako hondakinetatik, %86a da birziklagarria»

Sentsibilizazio kanpaina jarri zuen martxan Astigarragako Udalak, joan den astean, eta hondakinei buruzko informazio gida buzoneatuko du orain. Gaizki utzitako hondakin gehienak, edukiontzietan bertan uzteko modukoak zirela adierazi du.

ASTIGARRAGA UDALA

Hondakinak pilatuta zituztela ageri ziren, joan den astean, Astigarragako Kontxa Etxeberria eta Joseba Barandiaran plazak. Udalak martxan jarritako sentsibilizazio kanpaina baten parte ziren: «goizero, bi langilek jaso zituzten edukiontzia inguruetan oker utzitako hondakinak, eta bi plazetan pilatu zituzten, ondo kontrolatuz hondakin arriskutsurik ez agertzeko, eta usainik eta arratoirik ez izateko». Horrekin, asmoa zen jendeari ikusaraztea, zenbat hondakin uzten den gaizki: «Astigarragan botatzen den hondakin kopuruaren %65-70 egoki sailkatzen da; baina kezka haundia sortzen digu, ikustea edukiontzia inguruetan oker sailkatzen diren hondakin ugari, herriko hainbat zonaldeetan. Arazoa herritarrei erakutsi, eta bide batez, horri buruzko kezka eta kontzientzia sortzeko asmoz abiatu genuen kanpaina». Izan ere, nabarmendu du «auzo guztietan orokortua dagoen arazoa» dela, gaizki botatzeara.

Edonola ere, ez zuen kanpainaren berri eman asteazkenara arte, herritarren artean «harri-dura eta jakinmina» piztu zezaten pilatutako hondakinek.



Edukiontzien kanpoan utzitako hondakinen %31 izan zen materia organikoa, eta %86a birziklagarria.

### Oker utzitako hondakinen ia herena, organikoa

Otsailaren 10etik 16ra egin zuten oker utzitako hondakinen pilaketa, bi plazetan. Eta hurrengo egunean, joan den astelehenean, bildutako hondakin guztiak sailkatu eta pisatu egin zituzten, «emaitzak aztertu eta herritarrei erakutsi ahal izateko». Horrekin, nahi izan dute hondakinak oker botatzen dituzten herritarrek arazoa ikustea, eta jabetzea «denon egin-beharra dela sortzen ditugun hondakinak egoki bereizi eta botatzea».

Astelehenean bertan eman zituzten sailkatze eta pisaketaren emaitzak. Horrela, oker utzitako 294,47 kilo hondakin bildu ziren astebeteetan, eta horietatik, ia herena materia organikoa izan zen (92,04 kilo, %31). Papera eta kartoia zen %14a (41,17 kilo), eta ontzi birziklagarriak %11 (31,76 kilo). Gainerakoak, honakoak: ontzi ez birziklagarriak 9,68 kilo (%3), beira 4,8 kilo (%2), arropa eta ehunak 7,72 kilo (%3), ehunki sanitarioak 18,72 kilo (%6), RAEE eta bateriak 7,64 kilo (%3), lurra eta RCDak 47,69

kilo (%16), eta bestelakoak 33,25 kilo (%11). Horrela, nabarmendu du bildutako hondakinen %86a zela birziklagarria.

### Esku-orriak etxeetara, hondakinak egoki bereizteko

Kanpainaren hirugarren pausoa, izango da herritarrei informazioa helaraztea eta zalantzak argitzea, hondakinak egoki bereizteko. Bederatzi ataletan dago banatuta informazio gida: organikoa; papera eta kartoia; ontzi arinak; beira; errefusa; oihalak eta arropa; pilak, bateriak eta besteak; olioia; eta bolumen haundiko hondakinak.



Gaizki utzitako hondakinak sailkatu eta pisatu zituzten astelehenean.

Eta atal bakoitzean, azaldu dute hondakin mota horri dagozkion edukiontzietan zer utzi, zer ez utzi, nola utzi eta jaso ondoren zer egiten den. Esku-orrian jaso dute, baita ere, inguruko garbigune finko eta mugikorrari buruzko informazioa ere.

Hondakinen bilketari buruzko informazio gehiago jasotzeko eta zalantzak argitzeko, beste hiru bide ere jarri dituzte aurrean: 900 10 28 38 doako telefono zenbakia, [hondakinak@astigarraga.eus](mailto:hondakinak@astigarraga.eus) posta elektronikoa, eta [astigarraga.eus/hondakinak](http://astigarraga.eus/hondakinak) webgunea. **K**

## Dastatze gidatua etzi Iparragirren, uzta berria azalduz

HERNANI SAGARDOA

Sagardo dastatze gidatua antolatu du Iparragirre sagardotegiak, etzi, ostiralarekin. Iluntzeko 19:30etatik 20:30etara izango da, sagardotegian bertan; eta txotxetik egingo dute dastatzea, gidariak uzta berriaren ezaugarriak aurkezten dituen bitartean. Dastatze gidatua doakoa izango da, baina izena eman behar da aurretik, parte hartzeko. Horretarako, deitu 943 55 03 28 telefonora. Plaza mugatuak izango dira.

## Entrenatzeko zita gaur, Lilatoirako

ARANO-GOIZUETA LILATOIA

Martxoaren lehen izanen da Donostiako Lilatoia, eta lasterketa elkarrekin prestatzeko, lau zita jarri ditu LAGA Gizarte Zerbitzuari Beldintasan Batzordeak. Gaur egingen dute bigarrena, Leitzako kiroldegian elkartuta, arratsaldeko 18:00etan. Probaren egunerako, berriz, doako autobusa jarri dute, 09:00etan Leitzako Plazatik abiatuta, eta 18:00etan Donostiako Bulebarretik bueltatuta. Izena eman behar da: 674 086 926. Datorren astelehenera arte dago epea.

## Atzerritartasun Legeari buruz, saio informatiboa gaur

HERNANI AMHER

Atzerritartasun Legeari buruzko informazioa emateko, saio irekia antolatu du gaur arratsaldean, Amher elkarteak, Biltzen Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren laguntzaz. Biterin izango da saio informatiboa, 19:00etan hasita, eta SOS Arrazakeria elkarteak Elena Statik eskainiko du. Joateko asmoa dutenei, aurrez konfirmatzeko eskatu diete, [WhatsApp](https://www.whatsapp.com) bidez, 671 116 414 telefonora.

# ALAIA

ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA  
HORTZ ESTETIKA  
AHO KIRURGIA  
INPLANTEAK  
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA  
PERIODONTZIA  
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA  
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK  
TELERRADIOGRAFIK  
3D SCANNERRA  
AHO BARRUKO SCANNERRA  
KIRURJIA NABEGATUA  
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

Antziola 11, behea. HERNANI Tel. 943 33 53 73 [www.alaiaclinica.com](http://www.alaiaclinica.com) [alaihernani@gmail.com](mailto:alaihernani@gmail.com)

# LARRE-GAIN

TOLRE SAGARDOTEGIA

## Astez ERE eguerdian zabalik

Bakailaoa saltsan enkarguz

943 55 58 46  
616 28 78 67

EREÑOTZU - HERNANI

**EGURALDIA GAUR** Giro eguzkitsua nagusituko da gaur, baina zerua ez da guztiz garbi egongo. Goizean behe-lainoen arrastoak izango dira, eta arratsaldean goi-lainoak ugarituko dira. Goizean goiz hotza egingo du, baina hego-haizeari esker igoko da tenperatura. **Min.6° / Max.13°**

**BIHAR** Antzeko giroa izango dugu bihar ere, eguzkitsua. Hegoaldeko haizea indartu egingo da, eta bolada gogorak izango dira. Horrela, gora egingo du tenperatura. Arratsaldean, ipar-mendebaldera aldatuko da haizea, eta lainoak sartuko dira. **Min.7° / Max.15°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroea Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Tilos 7 Pasa pala txapelketarako, izenematea dagoeneko zabalik

Otsailaren 25era arte eman daiteke izena, 629 248 111 telefono zenbakian. Apiriletik ekainera bitarte jokatu da.

**HERNANI PALA**

Bueltan da Tilos 7 Pasa txapelketa, beste urte batez; eta 10garren edizioa izango du, pala torneo herrikoiak. Apirilean hasiko da, eta ekainera bitarte luzatuko da, finalak San Joan jaien aurretik jokatzeko.

Eta parte hartzeko, dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Datorren asteartera bitarte egin daiteke, otsailaren 25era arte, 629 248 111 telefono zenbakian. Bikote bakoitzako 40 euro



Txapelketa herrikoiairen finala, joan den urtean.

izango dira, eta gehienez ere, 60 bikoterentzat dago tokia. Txapelketako kamixeta bana jasoko dute opari, palista guztiek.

Lau kategoria izango dira aurten ere, aurreko urtean bezalaxe: herrikoia, neskak, lehe-

nengo maila eta bigarren maila. Partidu guztiak, ohi bezala, Tilosetako frontoian jokatu dira, astean zehar. Ligaxka fasea izango da aurrena, eta kanporaketak ondoren, jakiteko zein ariko diren lau finaletan. **K**



Urrian egin zuten aurreko odol ematea, Astigarragan.

## Odola emateko aukera bihar, astigartarrek

Anbulatorioan daukate hitzordua, 18:30etatik 20:30etara. Herritar guztiei luzatu diete deia, bertaratzeko.

**ASTIGARRAGA ODOL EMAILEAK**

Bihar daukate astigartarrek, urteko aurreneko zita, herrian bertan odola emateko. Izan ere, ambulatorioan jarri dute hitzordua, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara, eta herritar guztiei luzatu diete deia, bertaratzeko: «odola emanez, bizitzeko aukera ematen diegu, beste pertsona batzuei. Zuretzat une bat besterik ez da odola ematea, baina gaixo askorentzat bizia izan daiteke», nabarmendu dute.

Eta gaineratu dute, odola

emateak ez duela tragedia edo larrialdi egoerei lotuta egon behar: «gure bizitzako ohiko ekintza izan behar da. Egunero behar izaten da odola, hainbat egoerari aurre egiteko», argitu dute Astigarragako Odol Emaleen Elkartetik.

Horregatik, «ahalegin txiki bat» eskatu diete herritarrei, eta azaldu daitezela bihar arratsaldean ambulatorioa.

2019ko urrian izan zen odola emateko aukera azkenekoz, Astigarragako ambulatorioan. 50 lagunek eman zuten odola orduan, eta emaitzekin «pozik» agertu ziren Astigarragako Odol Emaleen Elkartekoak. Are gehiago, gazte asko gerturatu zirelako odola ematera. Horrelako erantzuna espero dute berriz hitzorduan ere. **K**

## Kontzertu berezia etzi, Musika Bandak

**HERNANI INAUTERIAK**

Inauterietako kontzertu berezia eskainiko du etzi, ostiralarekin, Heraniko Musika Bandak. Arratsaldean zehar herriko kaleak Tolosako Inauterien abestiekin girotu ondoren, Milagrosan eskainiko dute kontzertua, 19:30etan. Aurtengoan, egitaraua aldatu egin dute pixka bat, beste estilo batzuetako musika txertatuz, zartzuelatik euskal musikara, Eugenio Delgado, Jose Franco, Tomas Breton, Geronimo Gimenez edota Joaquin Ortega Canarioren piezekin.

## 'Ene kantak' ikusteko, azkeneko sarrerak

**HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

*Ene kantak, Sator Jator* ikuskizuna antolatu du Dobera Euskara Elkarteak, otsailaren 29an Orona Fundazioan, bi txandatan: 16:30etan eta 18:30etan. Eta azken-azkeneko sarrerak geratzen dira, Doberan bertan (Larramendi kalea 11) salgai, 10 euroan.

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE** enpresak **HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da.

**Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06.**

**LOGIKALINE** enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Portuko auzotarrak, Itxas-Buru sagardotegiaren kanpoaldean.

## Txotxarekin zitari hutsik egin gabe, Itxas-Burun Portukoak

**HERNANI PORTU AUZOAN**

Gabonetako ekintza bereziekin agurtu zuten urtea elkarrekin, Portuko auzotarrek; eta 2020ko

ekintzei ere, dagoeneko ekin diete, modurik onenean gainera. Urteroko ohiturari jarraituz, txotx egiteko jarri zuten hitzordua larunbatean, eta Itxas-Bu-

ru sagardotegian izan ziren 50 bat auzotar, giro ederrean.

Aurtengo aurreneko ekintza izan da hori, auzoan antolatutako diren artean.

**KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA**

Bidali zure CV-a, **otsailak 29ra arte:**

[kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)  
Dobera Euskara Elkarte  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

<b>ESKATZEN DA:</b>	/ Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.	/ Aktualitatearen jarraipena egitea.
	/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.	/ Kazetari lanetan esperientzia.
	/ Iniziatiba eta enpatia.	/ Nektatzeko, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
	/ Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.	/ Sare sozialak menperatzea.
<b>BALORATUKO DA:</b>	/ Urumea ballara ezagutzea.	<b>ESKAINIKO ZAIJO:</b>
	/ Doberako bazkide izatea.	/ Kontratua: amatasun bajari dagokiona.
	/ Tokiko hedabideak ezagutzea.	/ Eginkizunari dagokion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

**Nagusia 32, ASTIGARRAGA**  
943 55 49 89  
[ikatxalaberna@gmail.com](mailto:ikatxalaberna@gmail.com)